88. zenbakia

A.B.E.
Amara Berriko egunkaria

www.amaraberri.org
abmorlans@teleline.es

2005eko maiatzaren 17a, asteartea

Editoriala

Gaurko A.B.E. hau oso berezia da. Hemen gaude Morlans bota nahi dutelako eta bi lekualdaketa jasango ditugulako. Espero dugu gu laguntzea.

Giza katea

Morlans bota nahi dute eta ikasleok ez gaude horren kontra, baina bai bi lekualdaketa jasan behar izatea eskola berri batera joateko.

Duela 8 urte hasi ziren esaten eskola berri bat egingo zutela eta oraindik ez dira hasi ere egin. Gainera Komertzion gauden bitartean gure eskola berriaren obrak jasan beharko ditugu, eta jende askok obrak pairatu ondoren ezin izango du eskola berriaz gozatu.

Gainera eskola hori Donostiako kutsadura gehien dagoen tokian dago, Donostiako sarrera delako eta kotxe, moto eta kamioi asko pasatzen direlako.

Horregatik gaur giza kate hau egiten dugu, eskola on batera joateko eta lekualdaketa bakar batekin.

Martin Olaberria
eta Maite Nabaskues

Erredaktoreak

Oihane, Maite, Martin eta Nicolás

aurkibidea

1.- *AZALA: Giza katea*
2.- **GURE ESKOLA: Inkesta eskola berriari buruz**
3.- ALBISTEAK: Arartekoarekin, Asanblada, Prentsaurrekoa
4.- *LUMAREN KILIMA: Eskutitza*
5.- *GU ERE IDAZLE: "Hauxe da Morlans" abestia*
6.- *ENTRETENIGARRIAK*: **Wordsearch**

"Hauxe da Morlans" abestia

Nire aitak niri behin esan zidan
Eskola ederra duzue eskutan
Oso handia ez da eta zaharra agian
Gure gustokoa/daukago MORLANS.

Hauxe da MORLANS,MORLANS(TER)
Hauxe da MORLANS Amara Berrikoa

Eta alkatea hurbildu zitzaigun
Aizue lagunok hitzegin dezagun
Orain dela askotxo firmatu gendun
Zuek kanporatzeko/ hamaika itun

Hauxe da MORLANS.....

Sinatu ederki egin zenuten
Gu zuen bileran noski ez geunden
Kontutxo daukagu zuri esateko
Hemendikan ez gara mugituko

Hauxe da MORLANS.....

Nahiz ta ondo ez izan zuek entzumena
Hona etorri gara zuei esatera
Ez dugula joan nahi Komertziora
Bai ordea / eskola berri batera

Hauxe da MORLANS.....

Egilea: Adrian------

albisteak

Delegatua eta Alkatearekin bilera

Maiatzaren 12an, Odon Elorza alkatea eta Hezkuntza Delegatua Eskola Elkartearekin bildu ziren, Urbieta eskolan. Bileran Odon, Delegatua eta gurasoek bere argudioak azaldu zituzten

Arartekoarekin elkarrizketa

Eskola Elkarteko ordezkari batzuk joan den asteko ostegunean Iñigo Lamarca Arartekoaren aurrean planteatu zuten Morlanseko arazoa.
Iñigo Lamarcak esan zuen dokumentuak analizatuko zituela eta Morlansen kexa Udaletxea eta Hezkuntza Sailera eramango zuela.

Prentsaurrekoa Morlansen

Maiatzak 11ean prentsaurreko bat egon zen 11:00etan Morlans eskolan.
Kazetari asko egon ziren eta A.B.E.ko erreportari batzuk ere (Ferreriaseko 4 eta Molanseko beste 4) egon ziren argazkiak egiten eta dena grabatzen. Bukaeran galdera batzuk ere egin zituzten.

eskutitzak

Nahiko nuke gure eskola ez botatzea, baina orain ezin da ezer egin ez botatzeko.

Txikitatik hasi nintzen Amara Berriko eskolan. Beti amets egin dut Morlans eskolako garaia osoa pasatzea, baino orain 5. mailan nagonez eta irailean botako dutenez, ez naiz iritsiko bukatzera.

Ondo iruditzen zait Morlans eskola etxe berriak egiteko botatzea, baina gaizki iruditzen zait beste eskola batera bidaltzea eskola berria egiten duten bitartean.

Zergatik ez gara Morlansen gelditzen eskola berria egin bitartean?

Gainera zortzi urte eduki dituzte eskola berria egiteko. Morlansera joan nintzenean lehengo egunetik oso ondo pasa nuen: patio haundia, futbol zelaia, saski-baloi zelaia eta mendia...Baina jakin dudanez patioa txikia eta obraz inguraturik egongo denez ez zait batere gustatzen.

Eskutitz honen bidez azaldu nahi dizuet ez dudala nahi obren inguruan egotea.

OLATZ UCAR

Ni Amara Berrin hasi nintzen ikasten eta oraindik hemen nago, oso ondo pasa dut urte guztietan, gainera lagun asko egiten dira, urte bakoitzak maila desberdin batekin nagoelako.

Oso gaizki iruditzen zait gure eskola botatzea, nire ustez joango garen eskolan egin behar zituzten etxe-bizitzak, badakit nahiko berandu dela eta beste eskola txikia dela etxebizitzak egiteko baino beno.

Nik nahiko nuke, behintzat, patio handia edukitzea, zeren orain arte oso patio handia eduki dugu: Eskubaloi zelaia, futbol zelaia, saskibaloi zelaia eta beste tokiak jolasteko.

Gelak handiak eta argitsuak dira. Uste dut eskola berria ez dela izango hain atsegina. Nik behintzat ez dut nahi beste eskola batera joan gero beste batera joateko, esan nahi dut eskola berria egiten duten bitartean, nik Morlansen nahi dut egon.

LEIRE

Gu ere idazle

WORDSEARCH

C	C	H	E	B	O	R	A	K	A
U	M	O	T	H	E	R	T	C	R
P	C	O	P	Q	R	Ñ	H	O	M
B	T	A	U	T	U	S	S	O	C
O	H	A	R	A	A	T	O	K	H
H	A	W	P	P	H	T	F	E	A
R	J	A	N	L	E	T	E	R	I
D	J	O	O	F	A	T	H	E	R
H	S	H	O	V	N	C	L	E	C
B	P	C	H	S	I	S	T	E	R

MOTHER, FATHER, UNCLE, SISTER

ARMCHAIR, SOFA, COOKER, CUPBOARD.

CARPET, AUNT, TAP, SON.

IKER ETA JOSEMARI.

Eguraldia

Zerua hodeitsu edo oso hodeitsu egongo da, euri arina egingo du, egunaren lehen partean noizean behin ertaina izango delarik, eta aukera handiagoz kantauri isurialdean. Goizaldean ekaitzak izan daitezke. AzkenZerua hodeitsu edo oso hodeitsu egongo da, euri arina e egunaren lehen partean noizean taina izango delarik, eta aukera handiagoz kantau oizaldean ekaitzak izan daitezke. Azken orduetan hodeitz tuz da.

EGITARAUA

12,00.....”Sweeet home Morlans”
ABESTIA eta BURU-HANDIAK.

12,05.....ANTZERKIA eskolako haurrek egina

12,15.....Guraso talde baten ABESTI SAIOA.

12,20.....Eskolako haurrek BERTSOAK KANTATUKO DITUZTE eta “HAUXE DA MORLANS” abestia.

12,30..... “KIKE, BLAS ETA JONAS” pailazoen estrenaldi mundiala.

12,55.....ESKOLAKO AGIRIAREN Irakurketa.

13,00.....Ondoren *GIZA KATEA* UDALETXETIK HEZKUNTZA DELEGARITZARAINO, trikitixa doinuarekin.

13,20.....Amara Berriko neska-mutilek ALKATE ETA DELEGATUARI beren idatziak emango

AUPA MORLANS!!!!!